programa KOLAB programa

Zer lortu dezakegu?

1| Inspirazioa - ideiak sortu

2| laguntza teknikoa proiektuen kontzeptualizaziorako


3| Laguntza beste agente batzuekin kolaborazio bilaketan

4| Martxan jartzeko aukeratutako proiektu gaietan espezialisten laguntza

5| Finantziazio bilaketan laguntza

Metodología

Lankidetza-proiektuen kontzeptualizaziora iristeko erabiltzen ari garen metodologia dibergentzia-konbergentzia diamanteen ereduan oinarritzen da.



1

Arrailak kontrastatzeko eta identifikatzeko tailerra

Zer egin dugu?

1| Mugikortasunean, 4.0 retailean, eta garraio eta logistika aurreratuan azaleratzen ari diren 58 joeren azterketa.

2| Eskualdean inpaktu-potentzial handiena duten 22 joerak hautatzea

3| Eskualdearentzat aukera-eremuak definitzea, hautatutako joerei dagokienez.





2

Ikuspegi eta erronken tailerra

Zer egingo dugu?

1| Lehen tailerrean hautemandako 7 aukera-eremu nagusien analisia.

2| Sektoreak aukera-eremuetan dituen erronkak irudikatzea.

3| Erronka zehatzak hautatzea eta definitzea

3

Proiektuen ideiak identifikatzeko tailerra

Zer egingo dugu?

1| Proiektu zehatzak sortzea, aurreko tailerrean identifikatutako erronketatik abiatuta.

2| Eskualdean eragin eta bideragarritasun handiena duten proiektuak hautatzea.

4

Proiektuak kontzeptualizatzeko tailerra

Zer egingo dugu?

1| Hautatutako proiektuak abian jartzeko ibilbide-orria kontzeptualizatzea eta diseinatzea.

2| Hautatutako proiektuen gobernantza-eredua.

Vialrun Hiria gara

Ayuntamiento Udala Irun www.irun.org

Bidasoa activa Bidasoa bizirik

Gipuzkoako Foru Aldundia Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural

programa KOLAB programa

Hurrengo testuetan, kolaborazioan garatuko diren proiektuen inguruko erronkak identifikatzeko lehenengo tailerrean sortu ziren ideak agertzen dira.

FABRIKA BERRIA



Fabriken automatizazioa eta robotizazioa da, zalantzarik gabe, industriarentzako giltzarrietako bat datozen urteetan, eraginkortasunaren eta prezio-lehiaren bila. Enpresek arreta berezia jarri beharko dute zerbitzugintzan eta datifikazioan, merkatuan lehiakorrak izaten jarraitzeko.

ELEKTRIFIKAZIOA ETA ENERGIA JASANGARRI BERRIAK



Ibilgailu elektrikoak atzean utziko du errekuntza-ibilgailua, eta esponentzialki hazten ari den eskaria da. Elektrifikazioaz gain, beste energia jasangarri batzuk, hidrogenoa esaterako, merkatuan pisuz kokatzen dira.

KARBONO AZTARNA



Enpresek beren karbono-aztarnaren ardura hartu beharko dute, datozen urteetan sistematikoki murrizteko. Karbono-aztarnaren kudeaketaren merkatua enpresei lan horretan laguntzen dieten soluzioek eta zerbitzuek osatzen dute, eta bilakaera positiboa espero da.

DATUAK DENBORA ERREALEAN



Denbora errealeko informazioa garraio publikoaren arau berri bihurtzea espero da. Garraioaren itxaronaldia zehatz-mehatz jakiteak garraio publikoarekin jarraitzeko konfiantza eskaintzen die bidaiariei.

GREEN LOGISTIC



Logistika Berdea enpresa eta enpresa-sareetarako logistikaren, egituren, prozesuen eta sistemen estrategien eraldaketa integrala da, eta ingurumenaren aldetik arrazionalak diren logistika-prozesuak sortzeko eta baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko balio du.

AZKENENGO MILLA



Azken miliako eskari-joera nagusien artean daude e-commerce delakoaren ondorioz salgaien bolumena handitzea, kontsumitzaileek eskatutako zerbitzu-mailak igotzea, zerbitzuengatik gutxi edo batere ez ordaintzeko prest egotea eta “egun berean” entregatzea.

DENDA BERRIA



Denda fisikoak aldaketa handia izan behar du epe laburrean. Omnikanaltasun-eredu batean oinarritutako balio erantsia eskaini beharko du, dendako teknologia erabiliz, hura robotizatuz eta bezeroak dendara joatera animatuko dituen esperientzia-eskaintza batekin.

IZEN EMATEA

Vialrun Hiria gara

Ayuntamiento Udala Irun www.irun.org

Bidasoa activa Bidasoa bizirik

Gipuzkoako Foru Aldundia Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural